# 86. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2014ko urriaren 30ean, arratsaldeko zazpietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:** Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

**Bertaratutako zinegotziak:**

Arritokieta Gonzalez Elosua and..
Iñaki Ostolaza Esnal jn
Eneko Agirre Maiora jn.
Maitane Agirre Arrieta and.
Montse Arana Perez and.
Edurne Egaña Manterola and.
Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.
Isidro Fernandez Echave jn
Aitor Leiza Alberdi jn
Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

**Ez bertaratuak**

Peru Fernandez-Arroiabe Txapartegi jn.
Xabier Gallastegi Idigoras jn.

.

**Idazkaria:** Gorka Urgoiti Agirre

## EGUNEKO AZTERGAIAK

**1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA:**
**(81. zbkia - 2014.05.29);**

Aho batez, onartzen da

**2.- OGASUNA.-**
**2.1.- UDALAREN 11. ETA 12. KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA.**

Arritokieta Gonzalezek (EH BILDU) esan du azkeneko iraileko plenotik bi kreditu aldaketa berri egon direla, ogasun batzordean komentatu eta informatu ondoren legeak eskatzen duen moduan plenoan aipatzen dira eta honen berri ematen da.

----------------------------

**2.2.- IRIZPENAK:**
**2.2.1.- 2015. EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

**"2014KO URRIAREN 21EKO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2015. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEKO.**

**AURREKARIAK**

1.- 2014ko irailaren 30eko Ogasun Batzordean 2015. urterako ordenantza fiskalen lehenengo zirriborroaren proposamena aurkeztu zen.

2.- 2014ko urriaren 7ko Ogasun Batzordean 2015. urterako ordenantza fiskalen bigarren zirriborroaren proposamena aurkeztu zen.

3.- 2014ko urriaren 14ko Ogasun Batzordean 2015. urterako ordenantza fiskalen hirugarren zirriborroaren proposamena aurkeztu zen.

4.- 2014ko urriaren 21eko Ogasun Batzordean 2015. urterako ordenantza behin betiko proposamena aurkeztu zen. Ondoren, 2015erako ordenantza fiskalen behin betiko onespenerako Irizpenaren bozketa egin da.

5.- Irizpen honi 2015erako Ordenantza Fiskalen proposamena eransten zaio.(1.Eranskina)

IRIZPENA

Ondorioz, 2014ko urriaren 21ean, 2 (BILDU), 1 (ARALAR), 1 (PSE)-ren botoekin, Ogasun Batzordeak aldeko **irizpena jasotzen du** eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan arautūtakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Hasierako onarpena ematea 2015.urterako Ordenantza Fiskalen aldaketari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikuluaren arabera, udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratu hogeita hamar egunetan zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaian, 2014ko urriaren 21ean
Kontu-hartzaileak
Miguel Zubizarreta"

Arritokieta Gonzalezek (EH BILDU) gaia aurkeztu du esanez azkeneko urteetan bezala KPI edo IPC indizeari begiratuz, urtebeteko IPC-a aurten negatiboa eman duenez gero, beraien irizpide orokorra zerga eta tasak aurten izoztea dela.

**Ondasun Higiezinen Gaineko Zerga** edo IBI-an sartu den hobari berria izan da eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako ziurtagiria lortzen duten etxebizitzei urtebetean %50eko hobaria emango zaio

**Eraikuntza, Instalazio eta Obren** gaineko zergari dagokionez, ICIO-ari buruz, esan du merkataritzako erabilpeneko lokalen eraberritze edo egokitzapena dakartenean eta obra horren ondorioz negozioaren jarraipena edo birzabaltzea jokoan baldin badago, obra horiei dagokien ICIO-an %0,5eko karga tasa minimoa aplikatuko zaie, legeak ahalbideratzen duen minimoa izanik.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** **7 boto** (5 BILDU, 1 ARALAR, 1 PSE-EE)

**Aurkako botoak:** **4 boto** (EAJ-PNV)

**Abstentzioak:** 0 boto

**Erabakia**:

1.- Hasierako onarpena ematea 2015.urterako Ordenantza Fiskalen aldaketari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikuluaren arabera, udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratu hogeitamar egunetan zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu

diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du eta erreklamaziorik aurkezten ez badira behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

---------------------------

## 2.2.2.- 2015. URTERAKO TAXIEN TARIFA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

***"IRIZPENA, GIPUZKOAKO TAXI ELKARTEAREN 2015ERAKO TARIFEN PROPOSAMENA.***

**AURREKARIAK**

2014ko irailaren 25eko datarekin Eusko Jaurlaritzak, eta 2014ko irailaren 23an Urola Kostako udal elkartetik ondorengo eskaera bidaltzen digute: 2015erako Gipuzkoako Taxi Elkartearen tarifen proposamena onartzea. Udaleko Osoko Bilkurak onartu behar ditu lehenbailehen. Ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza sailera bidaltzeko, eta Urola Kostako udal elkartera, ondoren, Euskadiko Prezioen Batzordera bidaltzeko. Horregatik, urriaren 21eko batzordean dokumentazio guztia banatu eta aurkeztu zen:

UDAL HONEK ONARTUTAKO DAUZKAN AZKENEKO TAXI TARIFAK MANTENTZEA.

**IRIZPENA**

Hori dela eta, 2014ko urriaren 21en Ogasun Batzordeak onartu du 2015erako tarifen proposamena.

Aldeko botoak: 4 (2 BILDU, 1 ARALAR, 1 PSE).
Aurkako botoak: 0.
Abstentzioa: 0.

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea erabaki da.

Zumaian, 2014ko urriaren 21en.
Miguel Zubizarreta Elicegui
Kontu-hartzailea."

Arritokieta Gonzalezek (EH BILDU) adierazi du taxisten proposamena kongelazioarena dela eta udalaren irizpidea berdina denez gero, izoztearena alegia, aurtengo prezioak iazko prezio berdinak izatea proposatzen dutela.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 11 boto (4 EAJ-PNV, 5 BILDU, 1 ARALAR, 1PSE-EE)

**Kontrako botoak: 0 boto**

**Abstentzioak: 0 boto**

**Erabakia**: 2015. urterako taxien tarifa izoztea onartu da

---------------------------

## 3.- HIRIGINTZA.-

## 3.1.- ZUMAIAKO UDAL LARRIALDIETARAKO PLANA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

**2014KO URRIAREN 27KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO UDAL LARRIALDIETARAKO PLANARI ONARPENA EMATEKO IRIZPENA.**

**AURREKARIAK**

**1.-** Ikusirik 2014ko Uztailean TEKNIMAP enpresak Udalak eskatuta Zumaiako Udal Larrialdietarako Plana idatzi duela.

Dokumentu hau, 2014ko Irailaren 29ko Hirigintza batzordean informatu zen.

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2014ko Urriaren 27ko Hirigintza Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Iñaki Agirrezabalaga (Bildu)
Emiliano cabañas (PSE)
Isidro Fernandez (EAJ
Aurka: 0
Abstentzioa:0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

**LEHENA.-** TEKNIMAP enpresak idatzitako Zumaiako Udal Larrialdietarako Plana onartzea.

Alkateak gaia aurkeztu du esanez udaletxean 96. urteko larrialdietarako plan bat zegoela baina zaharkituta dagoela eta horregatik larrialdi plan berri bat

behar dela. Helburua herrian sortu daitezkeen kalte edo arrisku ezberdinei aurre egitea dela eta horrez gain prebentzio neurriak ere kontuan hartzen direla. Horrez gain, baita ere aldameneko mugakide diren herrietako batek eskaerak eginez gero, SOS-DEIAren bitartez Zumaiako udalerriko baliabideak ere bere eskura jarriko lirateke, kasu honetan Getaria, Zestoa eta Deba herri eskuetan baita ere. Ondoren arriskuen identifikazio bat egiten da banan-banan eta horrentzako prebentzio jarduera batzuk ere ezartzen dira, guzti hau dena SOS-DEIArekin bideratua izango litzateke. Azpimarratu du larrialdi plan hau Eusko Jaurlaritzako segurtasun sailarekin kontrastatuta dagoela, eta printzipioz beraien aldeko iritzia badutela.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak: 11 boto** (4 EAJ-PNV, 5 BILDU, 1 ARALAR, 1PSE-EE)

**Kontrako botoak: 0 boto**

**Abstentzioak: 0 boto**

**Erabakia**: Zumaiako udal larrialdietarako plana onartzea

----------------------------

## 4.- PROPOSAMENAK:

Bertaratutako zinegotziek bi proposamenak eztabaidatzea eta bozkatzea onartu dute.

### BILDU-ARALAR KOALIZIOAK AURKEZTUTAKOAK:
### 4.1.- HERRITARRON ADIERAZPENA: AUZIPETUTA DAUDEN 28 GAZTE ABSOLBITZEA.

"Euskal Herritarrok urte luzez gatazka eta sufrimendua bizi izan ditugu. Azken denboran emandako urratsek eta abiatutako prozesu demokratikoak, konfrontazioa eremu politiko hutsera mugatuko duen etorkizunera eraman gaitzan nahi dugu.
Abiatutako bide honetan, eragile politiko, sozial zein norbanakoek emandako urratsek ekarri gaituzte egoera honetara. Eta etorkizuna eraikitzen jarraitzeko, ezinbestekoa izango da denok erantzukizunez jokatzen jarraitzea. Bide horretan, agerikoa da lekuz kanpo daudela konponbidea eten edo oztopatu asmoz eraikitzen dituzten traba berriak, eta honako prozesu juridikoa, aurreikusita dauden beste batzuk bezala, horietako bat da.
Epaiketa hau, frustazio eragile bat da. Herritarrok ikusioz gaude ordea, eta bakean eta justizian oinarrituko den etorkizuna eraiki nahi dugu. Errespetua eta aitorpena oinarri izango dituena, eta eskubide zibil eta politiko guztiak onartuak izango dituena.

Justizia, garai berri baterako trantsizio ikuspegitik aplikatzen hasi behar da. Gure aurkako epaiketan inkomunikazio aldian torturapean egindako deklarazioak aurkezten ditu akusazioak froga gisa. Helburuak dituzte epaitzen, ez bitartekoak, hau da, jardun politikoa da epaitzen ari direna. Gutxi balitz, egun politikoki zentzurik ez duena, juridikoki ere biluztu egin du azkeneko 40 gazteren absoluzioak.
Horregatik, guztiagatik, adierazpen honekin prozesu judiziala bertan behera uztea eta inolako zigorrik ez jasotzea nahi dugu. Auzipetu denak absolbitzea edo egokien den bezala, baina 28 gazte hauek ere libre nahi ditugu.
Epaiketak sortuko dituen gastuei aurre egiteko 1.500 eurotako ekarpena egitea eskatzen dugu".

Alkateak adierazi du herritar taldeak sartutako idatziarekin Bildu-Aralar udal-taldeak bat egin duela bertan azaltzen den adierazpenarekin eta horretan erregistratu zela tratatzeko asmoz. Hasierako proposamenetik azken esaldia kendu egiten da, beraz hori izan ezik beste guztia izango litzateke plenora ekarri dutena. Azpimarratu du jendea epaitzea bere ideologiagatik erabat antidemokratikoa dela, zoritxarrez, egoera horretan zumaiar bat aurkitzen dela eta Zumaiako plenoaren bitartez elkartasuna adierazi nahi diotela bai berari eta bere familia eta lagunarte guztiei, eta EH BILDUren adierazpena epaiketa hori gaitzesten, sekula hasi behar ez zuen epaiketa.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak: 10 boto** (4 EAJ-PNV, 5 BILDU, 1 ARALAR,)

**Kontrako botoak:**

**Abstentzioak: 1 boto** (1 PSE-EE)

**Erabakia**: Auzipetuta dauden 28 gazte absolbitzeko proposamena onartzen da.

---------------------------

**4.2.- KONSTITUZIO-AUZITEGIAK KATALUNIAKO KONTSULTA BEHIN BEHINEKOZ BERTAN BEHERA UZTEKO ERABAKIARI BURUZKOA**,

" 1.- Zumaiako udalak defenditzen du herriek eta pertsonek beren etorkizuna demokratikoki erabakitzeko askatasuna dutela, berriki Eskozian ikusi den moduan. Izan ere, Zumaiako udalaren ustez, etorkizuna ezin da inposizioekin eraiki, oinarri demokratikoen eta herriek eta pertsonek adierazitako borondate askearen gainean eraiki behar da.

2.- Zumaiako udala ez dago inola ere ados Espainiako Gobernuak aurkeztutako errekurtsoarekin eta Konstituzio Auzitegiak hartutako erabakiarekin, katalanek beren etorkizuna askatasunez erabakitzeko eskubidearen aurkakoak batira.

3.- Zumaiako udalak askatzen dio Konstituzio Auzitegiari bi xedapen horiek behin-behinekoz bertan behera uzteko erabakian atzera egiteko eta aukera emateko katalanei 2014ko azaroaren 9an askatasunez adierazteko beraien iritzia.

4.- Zumaiako udalak erabaki hau Espainiako Gobernuari, Konstituzio Auzitegiari eta Kataluniako Generalitateari bidaliko dio."

Alkateak gaia aurkeztu eta proposamena irakurri du.

Emiliano Cabañasek (PSE-PSOE) esan du gai hau eztabaidatzen ez zirela sartuko bere momentuan helegitea aurkeztu ez balitz Auzitegi Konstituzionalaren aurrean Estatutuaren aurka. Hemen antzeko gauza gertatzen dela adierazi du, eta azpimarratu du inposizio bidez etorkizuna ezin dela eraiki, eta Gipuzkoan, zehazki, inposizioak maiz ematen dira. Hortaz, bada, kontrako botoa emango duela.

Alkateak esan du Gipuzkoan hartzen diren erabakiak hartzen direla demokratikoki hartuak daudela, hemen hauteskundeak egoten direla eta hauteskundeetan ordezkaritza politiko bat aukeratua izaten dela eta ordezkaritza politiko horrek bide demokratikoetatik erabakiak hartzen dituela. Bi gauza ezberdin esan dituela PSOEko ordezkariak, bat erabaki ahal izatea gaur egungo marco legalak lagatzen duena erabakitzen eta bestea marco legal horrek lagatzen ez duena erabakitzen da hain zuzen gu herri bezala gure etorkizuna zein nahi dugun adierazten gutxienez hori bermatuz eta bakoitzak bere helburu politikoak gauzatu ditzala instrumentu demokratiko horren bitartez, eta hori demokraziaren printzipio fundamental bat dela esan du

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak: 10 boto** (4 EAJ-PNV, 5 BILDU, 1 ARALAR,)

**Kontrako botoak:**

**Abstentzioak: 1 boto** (PSE-EE)

**Erabakia:** Konstituzio-auzitegiak kataluniako kontsulta behin behinekoz bertan behera uzteko proposamena onartzen da:

" 1.- Zumaiako udalak defenditzen du herriek eta pertsonek beren etorkizuna demokratikoki erabakitzeko askatasuna dutela, berriki Eskozian ikusi den moduan. Izan ere, Zumaiako udalaren ustez, etorkizuna ezin da inposizioekin eraiki, oinarri demokratikoen eta

herriek eta pertsonek adierazitako borondate askearen gainean eraiki behar da.

2.- Zumaiako udala ez dago inola ere ados Espainiako Gobernuak aurkeztutako errekurtsoarekin eta Konstituzio Auzitegiak hartutako erabakiarekin, katalanek beren etorkizuna askatasunez erabakitzeko eskubidearen aurkakoak batira.

3.- Zumaiako udalak askatzen dio Konstituzio Auzitegiari bi xedapen horiek behin-behinekoz bertan behera uzteko erabakian atzera egiteko eta aukera emateko katalanei 2014ko azaroaren 9an askatasunez adierazteko beraien iritzia.

4.- Zumaiako udalak erabaki hau Espainiako Gobernuari, Konstituzio Auzitegiari eta Kataluniako Generalitateari bidaliko dio."

----------------------------

**4.3.- LIBURU MAILEGUARENGATIK LIBURUTEGI PUBLIKOEK ORDAINDU BEHARREKO KANONA BERTAN BEHERA UZTEA ESKATUZ,**

" 1.- Alde batetik, uztailaren 18ko 624/2014 Errege Dekretuak ezarritako kanona atzera botatzeko eta bertan behera uzteko eskaera egitea, liburu-maileguaren eta liburutegiaren alorrean legeak ezartzen dituzten betebeharrak urratzen dituelako.
2.- Tokiko, foru-aldundietako eta autonomia-erkidegoko liburutegi publikoetan kanon horren edozein ordainketa bertan behera uztea."

Eztabaidarik gabe bozkatzeari ekin diote.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak: 11 boto** (4 EAJ-PNV, 5 BILDU, 1 ARALAR,1 PSE-EE)

**Kontrako botoak: 0 boto**

**Abstentzioak: 0 boto**

**Erabakia:** Liburu maileguarengatik liburutegi publikoek ordaindu beharreko kanona bertan behera uztea onartzen da.

" 1.- Alde batetik, uztailaren 18ko 624/2014 Errege Dekretuak ezarritako kanona atzera botatzeko eta bertan behera uzteko eskaera egitea, liburu-maileguaren eta liburutegiaren alorrean legeak ezartzen dituzten betebeharrak urratzen dituelako.

2.- Tokiko, foru-aldundietako eta autonomia-erkidegoko liburutegi publikoetan kanon horren edozein ordainketa bertan behera uztea."

---------------------------

## 5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.-

Montse Aranak (EAJ-PNV) esan du zinegotzi batek, herritarren ordezkari batek alegia, hitz egin duela eta "28 gazte auzipetuen alde" publiko bezala zeuden pertsona batzuk barre egin diotela, eta arpegiratu dio Alkateari, Alkateak berak bermatu beharko lukeela denon errespetua; hemen hitz egiten denean, emandako iritziarekin ados egon edo ez egon, lehenengo gauza errespetua dela eta pertsonak errespetua merezi duela eta hemen ez dela betetzen. Hori Alkateak bermatu beharko lukeela.

Iñakik erantzun dio baietz hala dela baina ez dela konturatu ere egin eta hala baldin bada barkamena eskatzen duela.

Montse Aranak (EAJ-PNV) frontoiko obra dela eta urte hasieran zuzendaritza lanak egiteko asistencia teknikoa emateko kontratua esleitzeko prozedurari uko egitea erabaki zuela. Izendatuak izan ziren arkitektoa eta arkitekto teknikoa zuzendaritza lanak egiteko. Hau dela-eta bi langile horien aparteko lan karga eta aparteko orduak azpimarratzen du, zeren langile batek lanaldiaren murrizketa onartuta daukalako. Idazkaritzako txosten baten medio azaltzen da lanalditik kanpo egindako orduak salbuespen egoerak betetzeko besterik ez direla. Honen arabera alkateari eskaera egiten diote azterketa sakon bat hirigintza departamenduan egin dezan dagoen egoera, lan karga dela eta langile baten egoera azter dezan eskatuz.

Alkateak erantzuten dio hirigintza departamenduan ezohiko egoera baten aurrean aurkitzen garela, gai honek azterketa sakon bat izan duela hirigintza batzordean eta hurrengo batzordean horren berri galdetu dezaketela.

Emiliano Cabañasek (PSE-PSOE) Montse Aranak (EAJ-PNV) esan duenaren errespetu faltaren harira esan du gauzak konpondu nahi badira bakoitzak berarengatik hasi behar duela, bestela ez dagoela konponbiderik.

---------------------------

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamabost minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria

**ACTA DE LA SESION PLENARIA nº 86**

En la villa de Zumaia, siendo las diecinueve horas del día treinta de octubre de dos mil catorce, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial del Pleno del Ayuntamiento, al objeto de celebrar sesión ordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y habiendo sido citadas en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

**Presidente:** Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

**Concejales:** Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua
Sr. Iñaki Ostolaza Esnal
Sr. Eneko Agirre Maiora

Zumaiako Udala

2014IAKU0012-008-003
Sra. Maitane Agirre Arrieta

Sr. Montse Arana Perez

Sra. Edurne Egaña Manterola

Sr. Isidro Fernandez Echave

Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua

Sr. Aitor Leiza Alberdi

Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez

**No presentes** Sr. Peru Fernandez-Arroiabe Txapartegi

Sr. Xabier Gallastegi Idigoras

**Secretario:** Gorka Urgoiti Agirre

**ORDEN DEL DIA**

**1- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR: (Núm. 81 - 29.05.2014);**

Se ha aprobado por unanimidad.

**2.- <u>HACIENDA.-</u>**
**2.1.- DAR CUENTA DE LA 11 Y 12 MODIFICACION PRESUPUESTARIA DEL AYUNTAMIENTO.**

Arritokieta Gonzalez (EH BILDU) ha informado que desde el último pleno de septiembre ha habido dos modificaciones de crédito. Tras informar y comentar ambas en la Comisión de Hacienda ahora se da cuenta de las mismas en el pleno.

---------------------

**2.2.- DICTAMENES:**
**2.2.1.- APROBAR, SI PROCEDE, LAS ORDENANZAS FISCALES PARA EL AÑO 2015.**

Arritokieta Gonzalez (EH BILDU) ha presentado el tema señalando que al igual que en los últimos años se tiene en cuenta el IPC del año en curso y como este año ha sido negativo, su criterio general será el de congelar tasas e impuestos.

**Impuesto Sobre Bienes Inmuebles** (IBI) se ha incluido una bonificación del 50% para las viviendas que consigan el certificado para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar.

**Impuesto sobre Construcciones, instalaciones y obras** en este caso ha comentado que en los casos en los que supongan una adecuación o renovación de los locales comerciales o cuando como consecuencia de esa obra suponga seguir con el negocio, a esas obras se les aplicará la tasa mínima de 50%, siendo el mínimo que admite la ley.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor: 7** ( 5 BILDU, 1 ARALAR, 1 PSE-EE)

**Votos en contra: 4** (EAJ-PNV)

**Abstenciones:** 0

**Acuerdo:** Se han aprobado las ordenanzas fiscales para el ejercicio 2015.

------------------------------

**2.2.2.- APROBAR, SI PROCEDE, LA TARIFA TAXIS PARA EL AÑO 2015.-**

Arritokieta Gonzalez (EH BILDU) ha manifestado que la propuesta de los taxistas es congelar las tarifas y puesto que el criterio del Ayuntamiento es el mismo, se propone que los precios sean los mismos que los del año pasado.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor: 11** (4 EAJ-PNV, 5 BILDU, 1 ARALAR, 1 PSE-EE)

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones:** 0

**Acuerdo:** Se ha aprobado la tarifa de taxis para el año 2015.

--------------------

3.- URBANISMO.-

**3.1.- APROBAR, SI PROCEDE, EL PLAN DE EMERGENCIA MUNICIPAL DE ZUMAIA.-**

El Alcalde ha presentado el tema diciendo que en el Ayuntamiento había un plan para emergencias del año 96, pero que ha quedado obsoleto y que corresponde elaborar uno nuevo. El objetivo es hacer frente a los posibles desastres que puedan ocurrir en el municipio, así como tener en cuenta las medidas preventivas correspondientes. Por otro lado, si algún municipio cercano hiciera la solicitud, se pondrían a su disposición los recursos de Zumaia mediante SOS-DEIAK, es el caso de Getaria, Zestoa y Deba. A continuación se hace una identificación de cada uno de los riesgos y se establecen unas actuaciones preventivas para cada caso. Todo esto se haría en coordinación con SOS-DEIAK. Ha subrayado que este plan está contrastado con el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco, y que en principio cuentan con su aprobación.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor: 11** (4 EAJ-PNV, 5 BILDU, 1 ARALAR, 1 PSE-EE)

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones:** 0

**Acuerdo:** Se aprueba el plan de emergencia municipal de Zumaia.

--------------------

**4.- PROPOSICIONES**:

**PRESENTADAS POR LOS GRUPOS EH-BILDU Y ARALAR:**

**4.1.- DECLARACION CIUDADANA: ABSOLUCION PARA LOS 28 JOVENES PROCESADOS.**

El Alcalde ha manifestado que el grupo municipal Bildu-Aralar está de acuerdo con el escrito que ha presentado un grupo de vecinos, por lo que se registró a fin de que fuera tratado en pleno. De la propuesta inicial se ha eliminado la última frase, de modo que menos eso, el resto del texto es lo que se presenta ante este pleno. Ha subrayado que es totalmente antidemocrático juzgar a la gente por su ideología, por desgracia hay un vecino de Zumaia en esta situación y mediante este pleno quieren mostrar su solidaridad tanto a él mismo como a sus familiares y amigos. De modo que EH BILDU presenta la declaración de condena contra ese juicio, un juicio que nunca debería de haberse celebrado.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor: 10** (4 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ARALAR)

**Votos en contra:**

**Abstenciones:** 1 (PSE-EE)

**Acuerdo:** Se aprueba la proposición relaltiva a la absolución de los 28 jóvenes procesados.

--------------------

**4.2.- REFERENTE A LA SUSPENSION CAUTELAR DECRETADA POR EL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL SOBRE LA CONSULTA EN CATALUÑA**

" 1.- El Ayuntamiento de Zumaia defiende la libertad de los pueblos y las personas a decidir su futuro de forma democrática, tal y como ha sucedido recientemente en Escocia. En este orden, el Ayuntamiento de Zumaia considera que el futuro no se puede construir sobre imposiciones, sino que se ha de construir sobre imposiciones, sino que se ha de construir sobre principios profundamente democráticos y sobre la libre voluntad expresada por los pueblos y las personas.
2.- El Ayuntamiento de Zumaia muestra su absoluta disconformidad con el recurso interpuesto por el Gobierno de España y la decisión adoptada por el Tribunal Constitucional, toda vez que va en contra del derecho a decidir libremente su futuro del pueblo catalán.
3.- El ayuntamiento de Zumaia solicita al Tribunal Constitucional que adopte la decisión de levantar la suspensión cautelar de ambos textos normativos, y así posibilitar que los catalanes puedan expresarse libremente el 9 de noviembre de 2014.
4.- El Ayuntamiento de Zumaia decide remitr el rpesente acuedo al Gobierno de España, al Tribunal Constitucional y a la Generalitat de Cataluña".-

El Alcalde ha presentado el tema y ha leído la propuesta.

Emiliano Cabañas (PSE-EE) ha manifestado que no hubieran entrado a debatir este tema si en su día no se hubiera presentado recurso contra el

Estatuto en el Tribunal Constitucional. Ha señalado que aquí ocurre algo parecido, y ha subrayado que no se puede construir el futuro mediante la imposición. Y concretamente en Guipúzcoa las imposiciones se dan muchas veces. De modo que votará en contra.

El Alcalde ha replicado que las decisiones que se toman en Guipúzcoa se toman democráticamente, aquí se celebran elecciones y en las elecciones se eligen los representantes políticos, y esos representantes políticos toman sus decisiones por vías democráticas. El representante del PSOE ha comentado dos cosas diferentes, por un lado poder decidir; dentro de lo que permite decidir el marco legal de hoy en día, y por otro lado, poder decidir lo que este marco legal no permite decidir, es decir que nosotros como pueblo podamos decidir que futuro queremos, que por lo menos eso lo tengamos garantizado. Y que cada uno pueda conseguir sus objetivos políticos mediante este instrumento democrático. Y concluido diciendo que eso es un principio fundamental de la democracia.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor: 10** ( 4 EAJ-PNV, 5 BILDU, 1 ARALAR)

**Votos en contra:**

**Abstenciones:** 1 (PSE-EE)

**Acuerdo:**

“ 1.- El Ayuntamiento de Zumaia defiende la libertad de los pueblos y las personas a decidir su futuro de forma democrática, tal y como ha sucedido recientemente en Escocia. En este orden, el Ayuntamiento de Zumaia considera que el futuro no se puede construir sobre imposiciones, sino que se ha de construir sobre imposiciones, sino que se ha de construir sobre principios profundamente democráticos y sobre la libre voluntad expresada por los pueblos y las personas.
2.- El Ayuntamiento de Zumaia muestra su absoluta disconformidad con el recurso interpuesto por el Gobierno de España y la decisión adoptada por el Tribunal Constitucional, toda vez que va en contra del derecho a decidir libremente su futuro del pueblo catalán.
3.- El ayuntamiento de Zumaia solicita al Tribunal Constitucional que adopte la decisión de levantar la suspensión cautelar de ambos textos normativos, y así posibilitar que los catalanes puedan expresarse libremente el 9 de noviembre de 2014.
4.- El Ayuntamiento de Zumaia decide remitr el rpesente acuedo al Gobierno de España, al Tribunal Constitucional y a la Generalitat de Cataluña”.-

-------------------

**4.3.- SOLICITAR LA SUSPENSION DEL CANON A ABONAR POR LAS BIBLIOTECAS PUBLICAS POR EL PRESTAMO DE LIBROS,**

" 1.- Rechazar la instauración del canon establecido por el R.D. 624/2014 de 18 de julio y pedir su supresión por vulnerar las obligaciones que la legislación establece en materia de préstamo de libros y biblioteca.
2.- Suspender cualquier pago de dicho canon en las bibliotecas públicas dependientes de las instituciones locales, forales y autonómicas. "

Se ha pasado directamente a la votación.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor: 11** ( 4 EAJ-PNV, 5 BILDU, 1 ARALAR, 1 PSE-EE)

**Votos en contra:**

**Abstenciones:**

**Acuerdo:**

" 1.- Rechazar la instauración del canon establecido por el R.D. 624/2014 de 18 de julio y pedir su supresión por vulnerar las obligaciones que la legislación establece en materia de préstamo de libros y biblioteca.
2.- Suspender cualquier pago de dicho canon en las bibliotecas públicas dependientes de las instituciones locales, forales y autonómicas. "

--------------------

**5.- <u>Ruegos y preguntas</u>**

Montse Arana (EAJ-PNV) ha reclamado del Alcalde que garantice el respeto a los concejales porque mientras un concejal, representante de los ciudadanos, hablaba se le han reído algunas personas que asistían como público a favor de los "28 jóvenes procesados", y que en la sala de plenos cuando se hable tiene que primar el respeto, que es lo primero, aunque no se esté de acuerdo con las opiniones manifestadas. Y que aquí no se cumple eso, y que el Alcalde lo debería de garantizar.

El Alcalde ha respondido que efectivamente eso es así pero que él no se ha dado cuenta, y que si ha sido así pide perdón.

Montse Arana (EAJ-PNV) ha tomado la palabra para manifestar en torno a la obra del frontón que a principios de año se renunció al contrato para llevar a cabo la asistencia técnica de la obra. Fueron nombrados el arquitecto y el

arquitecto técnico para llevar a cago los trabajos de dirección. Debido a ello se ha incrementado tanto la carga de trabajo de estas dos personas como las horas extras, y subraya que uno de los trabajadores tiene aprobada una reducción de jornada. En un informe de secretaría se recoge que las horas que se hagan fuera de la jornada habitual de trabajo no deben de ser más que para solventar situaciones de excepción. En base a todo esto, solicitan al Alcalde que se haga una revisión profunda de la situación en la que se encuentra el departamento de urbanismo, y más concretamente que se analice la situación de un trabajador en concreto, debido a la carga de trabajo.

El Alcalde de la respondido que en departamento de urbanismo está en una situación extraordinaria, que ha sido revisada en profundidad en la comisión de urbanismo y que en la próxima comisión pueden preguntar sobre ello.

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE) al hilo de lo que ha comentado Montse Arana (EAJ-PNV) sobre la falta de respeto ha dicho que si se quiere arreglar las cosas cada uno debe empezar por uno mismo, sino no es posible que se arregle nada.

No habiendo más temas que tratar, el alcalde-presidente da por finalizada la sesión cuando son las diecinueve horas y treinta y cinco minutos de la tarde y yo, el Secretario , doy fe.

El Secretario